

ZENBAT BURU

Ion Suarez

UDALETXETIK

Hainbat proiektu

finantziatzeko

55 milioi pta.

eman ditu

Europar Batasunak

GE

Ezkontzei

buruzko

gehigarri

berezia

BARRREN

1998ko maiatzaren 29a
V. urtea - 238. zkia


E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

1973



1998

Haritz Dantzari Taldearen
25. urteurrena



azkue

Domekan, Dantzari Eguna

“Konstantzia da desioaren eta gauzak burutzearen arteko zubia” anonimoa

BERRIGARAKO

OIHALEN

ANUNTZIOA



JON SUAREZ

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Politikoki zuzena

A itortu beharra daukat izenburua eta lerro hauen muina Andoni Egañari ostu dizkioidala. Otsaileko *Argia* batean idatzi baitzuen Andonik izenburu hau zerman iritzi artikulua bat. Baina interesgarria iruditu zait adibide gehiago jarri eta beste hausnarketa bat egitea, finean, haurrak ditugun guraso guztioi dagokigun gaia baita. Nik ere, hasieran Andonik bezala, ez dut kontzeptua oso ondo ulertzen, hasi naiz, ordea, nolabaiteko zantzuak sumatzen edo. Ikus ditzagun adibide batzuk, ea azkenerako ezer argitzen dugun.

Bertsolariak zioen haur literaturaren arloan, zenbait argitaletxe, lanak atzera botatzen ari dela politikoki zuzenak ez omen direlako. Mundu horretan dexente murgiltzea tokatu zait, eta Andonik zioenari buruz badakit zertxobait. Azkenean euskal idazle batzuk hasi dira beren lanak beste hizkuntza batzuetara itzulita ikusten. Horietako batek onartu zuen hitzaldi batean bere lan bat (euskaraz arrakasta handia izan duena) ez dela erderaratu karta jokoa eta ardoa agertzen direlako, eta hori ez da nonbait haurrei begira politikoki zuzena. Duela ez asko, berriki saritua izan den itzultzaile batek kontatu dit bere liburu batekin gauza bera gertatu zaiola: bukaera odoltsuegia du ipuinak, bukaera aldatzen ez badu, ez diote itzulpena argitaratuko. Ziurrenik ez zen haurrentzat politikoki zuzena izango bukaera odoltsua. Joan dira urte batzuk, niri ere Madrileko argitaletxe handi batek itzulpen batek orri bat kentzeko agindu zidanetik. Lerro haietako gaia abortoa zen. Ziurrenik ez zen gazteentzat politikoki zuzena izango. Ez pentsatu, ordea, estatuko argitaletxe handien jorkaera denik hori. Zehaztu gabe Andonik aipatzen zuen adibidea Euskal Herrian gertatu

zitzea beste idazle handi bati: ipuineko amona gaiztoegia omen zen, haurrak jotzerainoko gaiztoa. Ziurrenik ez zen haurrentzat politikoki zuzena izango halako jokaeren berri jakitea. Ipuin hau argitaratu zen azkenik, amonaxoaren izaera leunduta, ordea.

Irakaskuntzaren munduan gabiltzanok (irakasle, ikasle eta guraso) aspaldi honetan "erreformatu" beharra izan dugu. Erreforma horrek, bere funtsean, gauza on asko ditu (desegokiak ere baditu jakina). Onen artean zehar lerroen kontua aipatuko nuke. Badakizue, orain, eguneroko ogi ditugula eskolan bakea, hezkidetzeta, arrazakeria, solidaritatea, droga... Berba handiak dira eta beldur naiz ez ote ditugun txiki egiten sarriegitan merkeegi erabiltzen ditugulako, eta areago, kakanahaste honetan, ez badakigu zer den politikoki zuzena. Ez al dira ba gai hauetaz ikasleekin hitz egiteko ezin aproposagoak lehen aipatu ditudan adibideak? Karta jokoa, edaria, borroka odoltsuak, abortoa, heldu eta gazteen arteko konponezinak... Ez naiz ni etorri horien aipamen eta azalpenak noiz, non eta nola diren egoki edo desegokiak esatera. Baina politikoki zuzenak ez direlako aipatu ere egiten ez badizkiegu haurrei... zer arraiotaz hitz egin behar dugu irakasle eta gurasook ikasle eta seme-alabekin, bakea, osasuna, hezkidetzeta eta abarrez ari garenean?

Barkatuko didazue, gogoarekin geratu naizen arren, idazle eta argitaletxeen izenak aipatu ez baditut, baina ziurrenik ez litzateke politikoki zuzena izango datu horiek ematea. Izan ere, oraindik ez dakit (edo ez dut jakin nahi) politikoki zuzena zer den, baina zer ez den politikoki zuzena ari naiz poliki-poliki ulertzen. Gaitz erdi!

Barreak, Birak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteberu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldizkaria.*



Dietak direla-eta

Herri Batasunak egindako adierazpenen aurrean, Isaak Loiolak eta Gillermo Garate alkateak esandakoaren aurrean, zera adierazi nahi dugu:

- Ez Loiolak ezta alkateak ere, ez diote erantzun HBren adierazpenen muinari, hau da: gastuak bikoiztu baina gehiago egin direla bi urtetan, apenas inbertsiorik dagoen legealdi baten eta Oruesagasti Udaletxeko zereginetarako liberatua dagoelarik. Eta bigarrenik, HBk alkatearen gastuen frogagiriaren fotokopiak eskatu ditu eta Loiolak ukatu egin dizkigu hiru aldiz.

Horiei erantzun beharrean Loiolak HBk esan ez dituenak leporatu nahi dizkigu. Guk ez dugu sekula esan dieta kontzeptuetan dauden frogagiriak ikusi ez ditugunik. Aitzitik, bai prentsaurrekoan, bai kalean jarri genituen txarteletan argi esan genuen frogagiriak ikusi ditugula eta lasaiago aztertzeke fotokopiak eskuratu nahi ditugula.

Alkateak, berriz, jarrera hipokritari heltzen dio salaketei erantzun beharrean. Gobernu Batzordetik kanpo, Euskaltegien Mankomunitetik kanpo... utzi gaituen alkate bera, HBren asistentziari lotzen zaio azalpenak eman beharrean. Jakinda 1997an, bere alderdiaren poliziak (Ertzantza) bi aldiz espetxeratu zituela Mahai Nazionaleko kideak (oraindik ere han daude) eta zinegotziok Udaletxera joango ez ginela publiko egin genuenean. Euskara Batzordea paralizaturik eduki duen alkate berak, inoperantziaren salaketa aurpegiratu nahi digu, joko zikina erabiliz, HBren lana kakazteko asmoz.

HBk duintasun osoz esan dezake Udaletxearen eta herriaren bizitzaren jarraipena egiten duela, eta hau

koiuntura txar batean, HB zokoratzeko tresna den tripartittoa gobernuan dagoela, alkateak berak eta Oruesagastik informazioa eta boterea bereganaturik eta monopolizaturik duten legealdian, tartean muga patronalak direla, beste zinegotzien antzera.

Are gehiago, herritar askok daki gure lana ez dela mugatzen Udaletxeko lau hormetara, aitzitik, beraiei dagozkien arazoetan eta eguneroko erabakietan elgoibartarrak protagonistak bihurtzen saiatzen gara. Horrela ulertzen dugulako gure jardura politikoa.

HBk eta herri osoari erantzun beharrean aurkitzen da orain Garate (oraindik ere zain gaude Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako azterketaren aurrean zer esaten duen). Zeren eta gastu horiek horren justifikatuta baldin badaude, ez baldin badago ezer ezkutatzeko, zergatik ukatzen zaizkigu behin eta berriz eskutatuko frogagiriak?

Edozein herritarrek, eskubide osoa du bere dirua nola gastatzen den jakiteko. Eta eskubide hori zapaltzen ari dira Loiola eta Garate momentu honetan.

Elgoibarko HB

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

KEXAK

◆ **Herritar bat etorri zaigu Madalako parkea oso “lagata” dagoela eta badela “Udalak eskuhartzeko ordua” esanez.** “Parkeko kolunpio eta txirristaden azpian alfonbra berde moduko bat dago. Alfonbraren buelta osoa puntapariz josita dago, baina orain, izkina guztia altxatu egin da eta puntapariak bistan geratu dira. Gainera, lurreko baldosa asko apurtuta daude eta umeek hanka barruan sartzeko arriskua dago. Ez da hori txarto dagoen gauza bakarra. Arbola bat zegoen tokian burdin zati handi bat dago orain eta egunen batean umeren batek min hartu behar du. Zerbait larria gertatu aurretik egin behar



◆ Nagusien Heziketako ikastaroan dabilten hiru emakume etorri zaizkigu kexa honekin: “60 eta 74 urte bitarteko hiru emakume gara eta arratsaldeetan Pedro Mugu-ruza ikastetxera joaten gara Nagusien Heziketako (EPA) ikastaroan irakurtzen eta idazten ikastera. **Goiko solairuen gazte talde batek musika entseiuak egiten ditu eta beste egunean klasetik atera behar izan genuen zarata izugarria zegoelako.** Gazteek badakite ordu horretan klasean egoten garela eta norbaitek neurriren bat hartzeko ordua dela uste dugu”.

TXALOK

◆ Guraso batzuek txalo hau argitaratzeko eskatu digute: **“Oso gauza polita iruditu zitzaigun joan den domeka goizean egon zen erraldoi konpartsen kalejira.** Ekitaldi hau antolatatu zuen **Haritz Dantzari Taldeari**, beraz, **txalo handi bat”.**

B A I , E S A N ?



Jose Mari Ulazia

Gestio Eskolako zuzendaria

Zenbaki honetan kontaktzen dugun bezala, Gestio Eskola ‘Aukera Berdintasunen Eskubideen Aldeko Erakunde Laguntzailea’ izendatu du Emakundek. Ziurtagiri hau jaso duen lehen ikastetxea da Gestio Eskola eta momentuz bakarra. **Jose Mari Ulazia zuzendaria** rekin egon gara berbetan eta hona hemen kontaktu diguna.

- **Zer esanahi dauka Gestio Eskolarentzat ziurtagiri hau jasotzeak?** - Ez da atzoko kontua Emakunderekin lanean ari garela. Zenbait kasutan, gure ikaslegoari hitzaldi batzuk ematera hurbildu dira eta gu ere bertan izan gara. Harreman honen ondorioz, gure artean zenbait balore amankomun badauzkagula esan dezakegu eta testuinguru honetan, helburuen amankomunitasunean aurrera egiteko bidea suposatzen du.

- **Zer lan egin duzue, eta egiteko asmoa duzue aukera berdintasunaren alde?** - Hasteko, konpromezu bat sinatu dugu. Honen atzetik, eta ziurtagiri hau mantendu ahal izateko, zenbait lan egin beharra dago. Lan hauek geure buruari ezarritakoak dira eta gure beharrei erantzun zuzena emango dien gaiak dira. Orain hasi eta urte bukaerara begira, hizkuntzaren erabilerari garrantzia emango diogu eta ikasle, langile eta irakaslegoaren arteko harremanetan automatikoki hartzen ditugun jarrerei buruzko erreflexioak egiteko asmoa dugu. Aldi berean, gure ikasle, langile eta irakaslegoak ‘Aukera Berdintasunen Eskubideen Alde’ eskolak duen joeraren iritzia ezagutu nahi dugu; hemendik aterako baitira hurrengo urteetarako egin beharrekoak. Epe luzeagora, zuzendaritza munduari ere zenbait saio egiteko gonbita luzatu nahi genioke.

- **Azalduko al zeniguke Gestio Eskolaren filosofia lau hitzetan?** - Lau hitzetan baino, hirutan labur daiteke: ‘Jakitez, Ekitetz,... eta Izatez’. Izate honetan, pertsona izaten asmatu beharra daukagu, pertsonaren baliabide guztiak eta jarrera egokiak bultzatuz, egiten duguna konbikzioz, ilusioz eta maitasunez eginez.

- **Zenbat emakumezko eta gizonezko zaudete?** - Ikaslegoari dagokionez, %50a neskak dira %50a mutilak. Dedikazio osoz dagoen pertsonalari dagokionez, %50 emakumezkoak dira eta beste %50 gizonezkoak. Irakaslego kolaboratzailearen kasuan, %66a gizonezkoak eta %33 emakumezkoak dira.



II. URTEURRENA

*1996ko maiatzaren 28en, 72 urte zituela hil zen
BENITO IRURETAGOIENA ELUSTONDO en oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 30, goizeko 9:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.*



● Gazte Asanblada, Eibar-Gasteiz autopistaren kontra

Elgoibarko eta Deba bailarako Gazte Asanbladak Eibar-Gasteiz autopistaren aurkako kanpaina egiten ari dira. Elgoibarko Gazte Asanbladako zenbait kidek joan den ostiralean, Bergarako protesta ekitaldian hartu zuten parte. Panfletoak banatzeaz gain, ETBko furgoneta batera kateatu ziren hiru orduz. Bertan izan zirenen arabera, “gaueko 22:00ak aldera Ertzantzaren bi auto iritsi eta kateak eten ondoren, datuak hartu zizkiguten”. Bestalde, joan den asteburuan “Juanito Berraco” eta “Likidillo Antifasista” madrildarren kontzertua izan zen Gaztetxean. Honez gain, aste osoan zehar “premiarik ez duen makroproiektu xahutzaile”ari buruzko erakusketa ikusgai egon da Gaztetxean.

Emakundek aukera berdintasunaren aldeko zentroa izendatu du Gestio Eskola

Programa honetan parte hartzen duen lehen ikastetxea da

Emakundek, Emakumearen Euskal Institutuak, ematen duen “Aukera Berdintasunen Aldeko Erakunde Laguntzaile” izendapena eskuratu du IMHn kokatua dagoen Gestio Eskolak. Izendapen honen bidez, Gestio Eskolak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren alde lan egiteko konpromezua hartu du. Aipagarria da ziurtagiri hau eskuratzen duen lehen ikastetxea dela Euskal Herrian. Erakunde laguntzailea dela ziurtatzen duen agiria Txaro Arteaga Emakundeko buruak eman zion Gestio Eskolako zuzendaria den Jose Mari Ulaziarri joan den ostiral goizean izan zen ekitaldian. Bertan, Guillermo Garate alkatea, programaren arduraduna den Begoña Murelaga eta Gestio Esko-



laren barruan programa honen koordinatzailea izango den Susana Azpilikueta ere izan ziren. Hemendik eta abendura bitartean, Gestio Eskolak programa zehatz bat jorratuko du hartutako konpromezua gauzatzeko. Emakundeko eta ikastetxeko kideez osatutako segimendu batzorde batek, hitz emandakoa betetzen den ala ez ziurtatuko du.



9 herritako erraldoi eta buruhandien konpartsak Elgoibarren

Deba, Mutriku, Oñati, Markiña, Azkoitia, Mendaro, Ondarroa, Eibar eta Elgoibarko erraldoi eta buruhandien konpartsak Elgoibarren elkartu ziren joan den domekan. Haritz Dantzari Taldeak 25. urteurrena betetzen duela-eta, Erraldoi Eguna ospatu zen Elgoibarren. Asteburu osoan Plaza Handian ikusgai egon ziren 30 erraldoi eta 35 buruhandi, zein baino zein luzeago eta dotoreago. Igande eguerdian hasita, trikitilari, bi dultzainero talde eta Udal Txinstulariek alaituta, 9 herritako konpartsek kalejira egin zuten. Ilaran ilaran, erraldoi guztiek kaleetan zehar desfileatu zuten, buruhandiek txikiaren ikara-algarak sortarazten zituztelarik. Eguraldi aparta egin zuen eta horri eskerrak, kalejira oso jendetsua izan zen.

11 bolondres eta 6 gaixo elgoibartar Lourdesen

Lourdesera peregrinazioa edo erromesaldia egin zuten zenbait elgoibartar agertzen zaizkigu argazkian. Joan den ostiraletik astelehenera bitartean, mundu osoko gaixoak eta bolondresak Lourdesen elkartu ziren 4 eguneko konbibentzietan. Elgoibartik 11 bolondres eta 6 gaixo joan ziren; Gipuzkoatik, berriz, 900 bat lagun denera, tartean, Jose Maria Sietien gotzaina. Urtero Gipuzkoaren Eguna ospatzen da eta aurtan, zapatuan izan zen. Egun horretan Eukaristiaren eta suzuriaren prozesioak egin ziren eta igandean, ohiko meza unibertsala ospatu zen. Herralde guztietako pertsonak elkartzen dira elizkizunean eta Lourdesera joan direnek esan digutenez, “oso berezia izaten da”.





Port-Aventuraren inbidiarik ez!

Kiroldegiko igerilekua uretako jolas-parke erraldoi bihurtu zen joan den larunbatean. Kokodrilo itxurako jolas bat, txirristada bat eta laberinto moduko bat jarri eta igerilekuak ez zuen, ez, Port-Aventuraren inbidiarik. Goizean 100 bat haur aritu ziren ur-parkean eta arratsaldez beste 40 bat, guztiak sei begiraleren ardurapean.



Ikastolako haur eta gurasoak Urbian

Ikastolako 6. mailako ikasleek eta hauen gurasoek, 50 bat lagunek guztira, Urbiara mendi buelta egin zuten joan den astean. Guraso Elkarteak antolatutako irteera zen eta egun osoan eguraldi eta giro ona izan zutela azaldu digute. Arantzazuraino autoetan joan ondoren, Urbiara igo ziren. Bertan bapoz bazkaldu eta gero, Elgoibarrera itzuli ziren.



● Estatuko sari Nagusirako hautagaien artean dago Ongarri Argazki Kolektiboa

Bigarren aldiz, Ongarri Argazki Elkarteak Estatuko Argazkigintza Nagusirako izendatu dute antolatutako ekitaldiengatik edo bere historiarengatik nabarmendu diren elkartearen artean. Estatuko Argazkigintza Konfederazioak ematen du sari hau eta 1996. urtean, Ongarri Elkarteak irabazlearen artean izateko hautatua izan zen. Azkenean, Donostiako Sociedad Fotografica-k eskuratu zuen saria. Urrira arte ez da irabazlearen izenik ezagutzera emango. Jesus Mari Sarasuaren esanetan, "bigarren izendapen honen argi uzten du 1996an hautatzea ez zela 'bluff' bat izan. Sariaren kontu honetan gehiegi sinesten ez badut ere, gure lana errekonozitzeko modu bat da. Errekonozimendu hau Elgoibarko Udalarai, Aldundiari eta, nola ez, gure ekintzetan parte hartzen dutenei eta ideia berriak luzatzen dizkiguten guztiei zor diegu. Azken erakusketan, Gorka Salmerón-en inaugurazioan jaso genituen sentsazioek,

Pailazoak balkoetatik zintzilik

San Frantzisko kaleko balkoi bat eta Madalako parkea eskenatoki inprobisatu bihurtu ziren joan den ostiral iluntzean. Errotatxo Elkarteak antolatuta, Oihulari Klown taldekoek kale antzerkia eskaini zuten Euskal Herriko Prebentzio Elkarteak egiten ari diren kanpaina baten bueltan. Familia bateko kideen inguruan, drogen historiaren nondik norakoak azaltzen zituen antzezlanak. Saioa ordu eta erdiz luzatu zen eta herriko txikitxoek batez ere, tarte polita pasatu zuten.



Amabirjinaren hilabetea eta Gurasoen Eguna Pilar ikastetxean

Tradizioari eutsiz, maiatz osoa Amabirjinari eskainitako hilabetea izaten da Pilar ikastetxean. Horrela, bada, ikastetxearen sarreran, Amabirjinaren aldarea jarri eta ikasleek lora sortak eramanen dizkiote. Honez gain, asteazkenean elikizun txiki bat egiten da ikastetxeko kaperan eta hileko azken asteazkenean, Amabirjina agurtzeko beste elizkizun bat ospatzen dute Parrokian. Joan den asteazkenean, hilak 27, Lehen Hezkuntzatik hasi eta 6. mailara bitarteko ikasleak Parrokian izan ziren. Amabirjinari agur esateko asmoz, lora sorta ederrak eraman zituzten.

Bestalde, 300 lagun elkartu ziren pasatu berri den zapa-tuan Pilar ikastetxean ospatu zuten Guraso Egunean. Goizez jolasak, eskulanak eta futbito partiduak izan ziren eta ikasle eta gurasoen artean 300 bat lagun elkartu zirela esan digute. Bazkalostean kinan jokatzen aritu ziren, iluntze aldera jaieguna amaitu arte.

● **Unialcok Lerunen
supermerkatua egiteko
proiektua aurkeztu du**

Unialco enpresak aurkeztu du Lerun inguruan eraikiko den supermerkatuaren inguruko proiektua Udaletxean. Asteazken iluntzean Hirigintza Batzordean gai hau aztertu zuten, HBko J. Karlos Markos zinegotziak esan digunez. Proiektuan agertzen denaren arabera, uda aldera hasiko dira eraikuntza obrak. Supermerkatuak 2.000 m²tik gorako azalera izango du denera. Horietatik, 1.920 m² supermerkatuko erosketa guneari dagozkie. Honez gain, 5 denda eta kafetegi bat ere badaude. Markosen esanetan, "Udaleko Hirigintza Batzordeko teknikoen txostenak dioenez, 2.000 m²tik gorako gune bat eraikitzerako orduan baimena Jaurlaritzak eman behar du eta ez Udalak. Baina ez dugu txosten hori eskuratzeko aukerarik izan. Horregatik, Jaurlaritzakoekin harremanetan jarriko gara baimena nork eman duen jakiteko".

● **PP denda txikien alde**

PPko Juan Carlos Abianek hurrengo plenoan denda txikiak komertzio haundien erasoen aurrean babesteko mozioa aurkeztuko du. Abianen esanetan, "azken urteotan kate komertzial haundiak izugarri gehitu dira eta horiek kaltea ekarri diote gure herriaren oinarri diren dendari txikiei". Hori dela eta, PPk dei egin nahi dio Eusko Jaurlaritzari "sei hilabeteko epean komertzioei buruzko legea erregulatu eta 400 m²tik gorako komertzioei baimena emateko ahalmena izan dezan Udalak. Araua aldatu bitartean, gaur egungo araudia bertan behera lagatzeko" eskatzen du Abianek.

**55 milioiko dirulaguntza eman dio
Europar Batasunak Elgoibarko Udalari**

1994-97 urteetan gauzatutako
proiektuak ordaintzeko erabiliko da dirua

Europar Batasunak 55 milioi pezetako dirulaguntza eman dio Elgoibarko Udalari. Diru hau ezinbesteko laguntza izango da 1994-97 urteen gauzatu ziren proiektuak ordaindu ahal izateko. Aipaturiko urteetan burutu ziren obren kostua 133.627.000 pezetakoa izan zen eta, besteak beste, San Lorentzo, IMH eta San Rokerako bonbeo estazio baten eraikuntza eta edateko uraren sarearen hobekuntza egin ziren.

50 milioi Santa Klaran

Santa Kara auzoan egin ziren obrarik gehienak: errepidearen eta oinezkoen bidean konponketak egin ziren, lurazpiko zubia handitu zen, edateko uraren sareak hobetu ziren, argi berriak jarri... Guztira, aipaturiko obrek 49.200.000 pezetako kostua izan zuten eta horretara zuzenduko da jaso berri den dirulaguntza-kopururik handiena.

Aurretik aipatu dugun bezala, IMH, San Lorentzo eta San Roke auzoetarako bonbeo estazioa eraiki zen eta honek 31 milioiko aurrekuntua izan zuen.



Madalako zubia eta Urasandi lotzen dituen errotonda egiteko asmoa omen du Udalak. Horretarako fundizio zaharra bota beharra dago.

Proiektuak eta txostenak

"Fundiciones Urasandi" enpresa kokatzen zen gune industrial erostea eta Madalan errotonda bat eraikitzekeo proiektua idaztea 22.300.000 pezeta kostatu zen eta Altzola dorretxe ondo-ko etxeen erosketan beste 9.600.000 pezeta gastatu ziren. Era berean, San Pedro auzorako edateko uraren kalitatea hobetzeko egindako obren kostua 2.500.000 pezetakoa izan zen. Eerrehabiltazio eta ingurugiroari buruzko proiektu eta txostenak ere idatzi izan dira 15.800.000 pezeta inbertituz. Azkenik, ur eta saneamendu instalakuntzak hobetzeko azpiegituran obrak egin ziren (2.700.000 pezeta) eta Arriagako industrigunerako Barne Erreformatarako Plan Bereziaren kostua 527.000 pezetakoa izan zen.

Jon Aranoa
Gillermo Torres


Albaitaritzaklinika

San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 943 74 07 04 – 908 87 39 40

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



Osasunean adituak

GAIA:

Eguzkitako urtikaria

Osasun Zentroko Maria Jesus Arzuagarekin harremanetan jarri gara sasoi honetan agertzen hasten den alergia mota bati buruz berba egin diezagun, eguzkitako urtikaria, edo eguzkiak zenbait pertsonarengan sortzen duen alergiari buruz, alegia.

Eguzkia hartzerakoan, azalak jasaten duen inflamazio prozesuari deitzen zaio eguzkitako urtikaria. Eguzkia hartu duen azaleko zonetan gorriuneak agertzen dira, eta hazkure handia edo txikia eman dezakete.

Eguzkitako urtikaria oso bizia izaten den aren, ez da alergia probarik egiten. Aurretik farmakoak hartzerakoan edo erle edo liztorren batek ziztatzerakoan sortutako alergia kasuetan bakarrik dago justifikatua alergia probak egitea.

Prebentziorako modu bakarra alergia sortzen digun hori ebitatzea edo ekiditea da, eguzkirik ez hartzea, alegia.

OSASUN KEZKAK:

Zer egin muskulu-tiraketa gertatzen denean?

Muskulu-tiraketa bat dagoenean, atseden hartu eta kaltetutako muskulua erlajatu. Ondoren, benda batekin lotu eta ur izoztua etengabe jarri bendajearen gainean. Bost minututan gauza bera egin eta ondoren kendu, odola berriz pasatzen lagatzeko. Hiruzpalau aldiz errepikatu ariketa hau. Hurrengo 24 orduetan ez alkoholik edan eta medikuarengana joan, tiraketa gaiztotzen bada, are eta zailagoa izango baita ondo sendatzea.

DENTISTAK

Agustin Sanchez

..... A. Arrillaga, 8 • Tel: **74 37 47**
 Astelehena-ostirala:
 9:00-13:00 / 16:00-17:00
 Asteartea, asteazkena, osteguna:
 9:00-13:00 / 16:00-19:00

MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **74 08 96**
 Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **74 07 70**
 Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda

..... San Bartolome, 25 • Tel: **74 40 31**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **74 37 34**
 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **74 03 59**
 Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **74 35 62**
 Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **74 36 56**
 Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **74 32 90**
 Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahbaduzu, deitu BARRENEko 74 41 12ra

1,78 metroko altuera eta 89x62x90 neurriak ditu. Nagore Perez elgoibartarra da jaiotzez baina azken urteotan Deban bizi da. 19 urte ditu eta kazetaritza ikasketak egin nahi lituzke. Moda eta publizitate munduan sartu zen 14 urteko neskatila bat zela. Orain gutxi bukatu berri da ETBn aurkeztu duen Dantzaki saioa, Nagoreren lehen esperientzia izan da telebistan. Neska alai eta irrifartsu batekin egin du gu topo. Etorkizuna ilusioz ikusten duen neska berri-tua da.

**NEREA PEREZ
NAGORE**

“Telebistako aurkezlea izatea gustatuko litzaidake”

– Txikitan modelo izan nahi al zenuen?

- Ez dakit. Kasualitatez sartu nintzen moda munduan. 14 urte nituela *Ragazza* aldizkarian, modeloak topatzeko *Smirnoff* izeneko lehiaketa zegoela irakurri nuen. Argazkia eta datuak bidali eta deitu egin zidaten. Donostian desfile batean parte hartu nuen eta “First Models” agentziakoek ikusi eta haiek animatu ninduten.

– Mis lehiaketak, desfileak, telebista...

- Telebistarena ere kasualitatez izan da. Euskadi Irratian elkarriketa egin zidaten eta denbora batera, ETBko programa zuzendaria den Oterminen deitu zidan, eza-gutu nahi ninduela eta Miramonera joateko. Iritsi nintze-nean proba bat zela ikusi nuen. Egun batzuetara deitu ninduten *Dantzaki* dantza

lehiaketa aurkeztu nahi nuen galdetuz. Hasieran zalantzak izan nituen ez bainago prestatua horrelako zerbait egiteko, baina gero, niretzat balio-garria izan zitekeela konturatu eta onartu egin nuen.

– Nola ikusi duzu zure burua kamara aurrean?

- Ez zait gustatu. Etxean ez nuen telebista ikusterik nahi. Akatsak bakarrik ikusten nituen. Aberasgarria izan da baina oso gogorra da kamara aurrean, publiko aurrean jarri eta hitz egitea. Zalantza pila bat dituzu, ez zara batere seguru sentitzen... Batez ere, hizkuntza aldetik asko hobetu behar dudala konturatu naiz.

– Zer egin zitzaizun hain gogorra?

- Oso bakarrik sentitzen nintzen. ETBn bakoitzak bere gauzak zituen egiteko, inor ez zen nitaz ardurat-

zen... Hala ere, asko ikasten da eta helduago egiten zaitu. Eskerrak Josu Mujika eta Yolanda Altzolari, epaimahaikideak ziren eta asko lagundu zidaten.

– Halere, telebista gustatu zaizu.

- Bai, asko. Ez naiz gustura geratu egindakoarekin eta uste dut gehiago egin dezake-dala, ze ikusten nuen neska ez zen Nagore. Baina, hala eta guztiz, telebistan lan egitea asko gustatuko litzaidake.

– Neska polita izanik errazago ligatzen al da?

- Beti galdetzen didate gauza bera. Lagun asko dauzkat mutilen artean baina uste dut lagun bezala hartzen nautela batez ere. Juergan ateratzen naizenean mutilak ez zaizkit hurreraten. Ez daukat senargairik eta batzuetan nahiko nuke nire ondoan maite nauen norbait izatea, baina... Iritsiko da. Mutil kariñosoa izatea nahi nuke eta bere ondoan babes-tua sentitzea. Modeloak diren mutil guapo asko ezagutzen ditut baina ez naute betetzen.

– Nolakoa da Nagore gauz bere etxean?

- Momentu honetan nere bizitzan garrantzitsuena familia da. Oheratzen naizenean, erretratzen dudanean familiarekin pentsatzen dut. Oso garrantzistuak dira niretzat. Ostantzean neska baikorra naiz, alai... baina, beste guztiek bezala, badauzkat nire inseguridadeak, zalantzak eta tristurak, batzuetan autoestima nahiko behean, gaizki sentitzen naiz nire gorputzarekin, nire inguruko jendearekin, ikasketekin... Pertsona normala naiz.

BESTEAK ESANA

“Neska jatorra, naturala eta espontanea da, begibistako edertasunaz gain, niretzat oso pertsona berezia da” NEREA PEREZ, izeba.



Ezkontzerik nahi?



m

aiatza loreen eta maitasunaren hilabetea omen da. Eta, egia esan, garai honetan hasten dira Euskal Herriko txokorik gehienetako bikoteak ezkontzen. “Bai, nahi dut” esaldi erromantikoaren atzean, hala ere, gauza asko daude. Ezkontza baten prestakuntzak barrutik ezagutu dituen edonork daki zenbat gauza izan behar diren kontuan: data jarri, eliza aukeratu, jatetxea, musika taldea, gonbidapenak, argazkiak, soinekoa, opariak, eztei-bidaia... Batez beste, milioi eta erdi pezeta behar dira ezkontza antolatzeko.

Gehigarri honetan “egun haundi” horretarako jarraitu behar diren zenbait argibide eman nahi izan ditugu.




San Inazio, 5 behea
Tel: 943 74 36
50/4
Faxa: 943 74 38 93
Informazioa
eta erretsebak:
902-10 32 87



Luxuzko auto parega-
beak dauzkagu!

*Ines Sainzek,
1997ko Miss
Espainiak,
emaztegaien eta ospaki-
zunen bildumak ikustera
gonbidatzen zaituzte
Bilboko bere dendetan.*



Ines Costura Novias

Navarra kalea, 12 BILBO

Tel: 94 423 47 99

DaNais Novias

Buenos Aires kalea, 7 BILBO

Tel: 94 423 15 86



Jan eta jan

Ezkontza eguneko izarra izaten da, zentzu guztietan. Elizkizunaren ostean mahaian eseri eta jan eta jan egoten dira gonbidatuak ezkontza egunean. Senargaiak badakite berebiziko garrantzia duela menuak. Gaur egun jatetxe askotan urtebeteko epearekin komeni da egitea enkargua, batez ere maiatzetik irailera bitarteko hilabeteetan ezkondu nahi denean.

Jatetxe guztiek izaten dituzte ezkontza egunerako menu bereziak. Hala ere, orientazio modura egoten dira prestatuak, senargaiak aukera baitute zerbaite aldatu, kendu edo gehitzeko. Hamabost egun lehenago zehazten da behin betiko menua, Hotel Loiolan esan digutenez.

Mariskoarekin prezioa gora

7.000 eta 10.000 pezeta artean dago menuaren zenbatekoa, nahiz eta hortik gora ere nahi beste igo daitekeen. Hala ere, bikote gehienek erdibideko menua aukeratzen dute. Tipikoena, Itziarko Salegiren esanetan, "entremes hotz eta beroak, langostinoak, almejak edo kokotxak, salda edo marisko kremaren bat, legatza edo zapoa eta solomilloa edo arkumea dira. Hori guztia ardoz eta xanpainaz urteztatua, noski. Eta amaitzeko, tarta, kremazko milhoja helatuarekin batez ere". Hala ere, marisko gehiago sartetzea gustuko izaten dute batzuek, zizalak direla, bogabantea dela... Eta horrek prezioan gora egitea esan nahi du, nola ez. Bikote batzuek betiko-



ra jotzen dute, gonbidatu guztien gustua asetzeko. Halere, Bergarako Lasa jatetxean azaldu dutenez, "badira menu original eta pertsonalizatua nahiago dutenak ukitu berezia ematearren, eta horretarako aukera ere badago. Ohiko urdaiazpikoa beharrean honddo papillotea eskain daiteke, euskal piperrada... Hainbat eta hainbat gauza".

Gaur egun, gainera, oso modan dago jangelara sartu aurretik koktela egitea eta sarrerako pintxoak edo kanapeak jatea ardoarekin edo xanpainarekin batera. Koktela menuan sartzen da gehienetan.


Menutik kanpo geratzen dira musika taldea (70.000-75.000 pezeta bitartean) eta barra libre, azken hau amaieran kobratzen delarik, gonbidatuek edaten dutenaren arabera.

.....



HERRI-GAİN
ERRETEGIÀ

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40



TEXTIL
HOGAR
LAGU -

Orain San Roke



“Behin batian Loiolan...”

...erronomia zan. Hantxe ikusi nuen neskatxa bat dantzan”. Abesti hau eta beste bals, tango edo pasodobleak, nork ez ditu dantzatu ezkontzaren batean? Giroa alaitzeko musika talde bat eraman baino ezer hoberik ez dago. Ezkontzetako giroa alaitzen ibili da, hain zuzen, azken urteotan Elgoibar-ko *Udaberri* taldea. Halere, esan digutenez, aurten dute azken urtea. Pena da, baina nekeak eta eurentzat asteburuak libre hartzeko nahiak bultzatuta hartu dute erabakia.




Iñaki Saezek, *Udaberri*ko abeslariak esan digunez, “plazetan hasi ginan, baina denboria-kin ezkontzetan jotzera pasau ginan”. Desberdina omen da batean edo bestean jotzea, “batez ere ezkontza batian jende guztiak itxen dabalako dantza, edozer jotzen badozu ere”. Hala ere, aitortu digunez, “gitxigorabeherako listia eruaten doun arren, gonbidatuen artian ze adineko jendia dauan kontuan hartzen dou abestixak aukeratzeko”. Eda-

detuek balsak eta pasodobleak gustuko dituzte eta gazteek nahiago dute martxa gehiagoko abestiak entzun, “guk danetik jotzen dou. Baina normalian, ez gera moda-modako abestixen oso zaliak. Iaz, esate baterako, ez genduan jo ‘Ese toro enamorado de la luna’, ez gera holakuen zalia”.

Pare bat orduko saioa izaten da normalean, “bazuetan luzatzeko eskatzen digute baina hori jate- txekuen esku dao, ze gabaz beste ezkontza bat baldin badake, lehenbailehen nahi izaten dabe dana ja- so besterako preparatzen hasteko’.

Anekdotak ugari bizi izan dituzte *Udaberri* talde-ko kideek, “jatetxera ailegau eta beste talde bat zauala ikusi, adibidez. Hori pasau izan da jatetxia-kin talde bati eta nobixuek beste bati deitxu izan diue- nian”.

Lagatzera doaz baina euren soinuen erritmora makina bat pertsonak egin izan du dantza, “eta abestu ere bai. Ezkontza askotan urtetzen da jendia mikrofono aurrian jarri eta edozer kantatzeko go- guakin... Askotan moztu ein bihar izaten ditxuzu, ze abesti batek grazia itxen dau baina hirugarrenakin jendia aspertu itxen da”.



Bidebarrieta, 4
Tel: 943 20 27 16
20600 EIBAR

E Erretxindi
 Inmobiliaria
 Miguel Larrañaga Aizpitarte • API 254
 Errosario, 25 • Tel: 943 74 43 58

foto | azkue

Ezkontzetako
 San Bartolome, 26 • Tel: 943 74 08 48



Ezkonberrientzako



Ezteibidaia erretserbatzerakoan 3 hilabetera ordainketa egiteko aukera, interesik gabe.

Gainera, ante eta nartzuz egindako eskuko boltsa hau opari.



ostarku

PROFESIONALAK

Ez itxaron gehiago!

Enkarga ezazu

dagoeneko

zure

ezkontza

erreportajea.



ARGAZKI-ERREPORTAIK
KALITATE DIGITALA DUTEN
BIDEO ERREPORTAIK

Santa Ana, 5 - ELGOIBAR - Tel. (943) 74 06

e SALEGI e



Jantoki berrituak

50, 100, 200 eta 250 pertsonarentzako jantokiak

Menu pertsonalizatuak

Koktel eta argazkietarako jardin aproposa

Parking-a



e

e

ARANTZAZU

Edergintza

San Inazio 4, - Tel: 943 74 27 25

Biak

ileapaindegia

San Inazio 4, - Tel: 943 74 27 25

AGURTZANE
Ileapaindegia

San Bartolome, 4 atzekaldea
Tel: 943 74 18 64

ELENA

ileapaindegia

San Franzisko 49-1 · Tel: 943 74 11

Garbiñe

EDERGINTZA

P.M. Urruzuno 27 - Tel: 943 74 31 32

IDAMA

ILEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 - Tel: 943 74 40 26

Egunik EDE-
RRENA

profesionalen
esku!!



Kide
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 74 00 69
San Frantzisko, 40 3 - B

Maria Urizar
ileapaindegia

Errosario 9-1 ☎ 943 74 44 89

Azalea

EDERGINTZA

Trenbide kalea, 3 beheha
Tel: 943 74 03 10

Sidney

ILEAPAINDEGIA

San Franzisko 26-1 · Tel: 943 74 09

ILEAPAINDEGIA

solariuma

Kalamua, 2 - Tel: 943 74 43 57

 **XABIER**
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 - Tel: 943 74 19 97

● **DONNA**

Ileapaindegia- Edergintza

Pedro Muguruza, 13
Tel: 943 74 43 88

ITZALA

Edergintza

San Frantzisko, 49 - 1 esk.
Tel: 943 74 43 03

JOSE ANTONIO

ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 - Tel: 943 74 14

LASA JATETXEA



*Ezkontzaren unea sekula ahoz ez dezazun eta zure bizitzako oroigarri gogoa-angarria izan dadin egi-ten dugu lan **LASA** jatetxean. Jatearekin plazerra lortzeko lantzen ditugu jakirik goxo eta preziatuena.*

Maitasunean eta alaitasunean gantzatutako ezkontza batean ezin falta bazkari bikain batek sortzen duen plazerra.

***LASA** jatetxean bada-kiugu zer den hori. Erdi aroko "Ozaeta" jauregiaren maisutasunaren babespean igaroko dituzu zure bizitzako unerik alaiena.*



Ozaeta Jauregia - Tel. 943 76 10 55 - Faxe 943 76 20 29
BERGARA



Atsegin handiz gonbidatzen zaitut



*Nola jakinarazi ezkondu egin behar dugula
eta gonbidatua zaudela? Horretarako daude
gonbidapen txartelak. Ezagunei ahoz esa-
ten zaien arren, gonbidapen txartelak
guzti-guztiei iristen zaizkie. gaur
egun, gainera, aukera zabala
dago bai material, bai forma
bai kolore aldetik.*

dEBAPE inprentan esan digutenez, “nahi beste aukera dago gonbidapen txartelak egiteko orduan. Bezeoaren gustu guztietara egokitzen dira txartelak”. Materialari dagokionean, gehien-gehienak kartulina modukoak izan ohi dira baina hortik aurrera nahi den kolorea aukera daiteke, nahi den marrazki edo irudia, tamaina asko daude... “Azken boladan, esaterako, folio tamainako txartelak oso modan daude. Folioak baino estuxea-goak dira eta erditik doblatzen dira”. Jendeari asko gustatzen zaizkio, baita ere, pergamino itxura dutenak, zahar itxura hartzen dutenak azken batean. Eta, egia esan, txartelen gai honi dagokionean, jendeak

ez du gauza kargatuegirik nahi izaten, “aliantzen irudia sartzen dute asko jota baina ostantzean, lora eta marrazki gutxi. Koloreari buruz, zuria eta marfila nabarmentzen dira eta zerbait sartzekotan, urdin finen bat edo”. Testua bikoteak aukeratzen du eta gaur egun, “oso gutxik sartzen dituzte gonbidapenetan gurasoen izenak. Garai batean beti sartzen zen”.

Gonbidapen txartel batetik bestera alde handia dago prezio aldetik. Materialak igotzen du kostua, tiradaren arabera ez baitago gorabeherarik, “berdin balio du 80 txartel edo 200 egiteak. Baina segun eta zein modelu aukeratzen den, txartel bakoitzaren zenbatekoa 90 eta 200 pezeta artekoa izan daiteke”.


Utzi zure ezkontza-gonbidapenak benetako profesionalen eskuetan



Imprenta
Arrillaga

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, CARPETAK ETA
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET

Trenbide, 13 behea • Tel.: 943 74 01 87 • Faxa: 943 74 27 40



DEBAPE

INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSIZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

Olaso industrialdea, 27 • Tel.: 74 40 58 • Faxa: 74 41 78 • ELGOIBAR



Gustura joaten al zara ezkontzetara?



Maite Torinos
28 urte,
etxeoandrea

Bai, gustatzen zait dotore jantzi eta juergatxo bat egitea. Hala ere, ez naiz asko jan eta edaten duten horietakoa. Aurten bi ezkontza ditugu eta nahikoak dira.



Maria Perez
43 urte,
administraria

Bai, gustura joaten naiz. Asko tokatuz gero urte berean arazoa dirua izaten da baina ostantzean, aitzakia polita da lagunak ikusi eta familia elkartzeko.



J. Felix Larruskain
36 urte,
irakaslea

Konpromisoz askotan. Geurea ere etorri izan dia eta geu ere jun bihar. Hala ere, behin jun ezkeru ondo ibiltzen naiz, baina larregi pasau be. Pare bat urtian nahikuak dia.



Cesar Arriola
34 urte,
injineru teknikoa

Bai, gustatzen jata asko ez bada urtian. Hiru baino gehixo asko dia eta, ahal bada, hiru hilabetian behin eukitzia da onena. Ondo pasatzen da.




Paqui Ferrero
38 urte,
etxeoandrea

Bai, gustatzen zait ezkontzetara joatea. Aspal-diko lagunak ikusten dituzu, familiarekin elkartzen zara.. Batzuetan konpromezua ere izaten da, batez ere asko direnean.



Josean Gurrutxaga
41 urte,
mekanikoa

Bai, gustura. Zelebrazio haundia izaten da, ondo jan, barriak bota... Baina, hala ere, urtian pare bat eta nahikua. Hortik gorra gehixegi da.



GAZTELU



**Soineko berriak
eta bigarren
eskukoak**

**AMABITXIAK
JAUNARTZEAK**

**Neurrira egindako lanetan
profesionalak gara.**

Errebal kalea, 15 behea - **Tel:** 943 20 81 59

E I B A R

Betirako oroigarria



Ezinbestekoa da. Senar-emazte guztiek dute etxean euren ezkontza eguneko argazki-album-a. Gazte-gaztetako irudiak urteen poderioz ere mantendu egiten dira eta seme-alabei eta bilobei erakusteak ilusio berezia egiten du, ezta?

Azkue argazkidendan esan digutenez, argazkien gaia ez da gehiegi aldatu azken urteotan. Senargaiei elizkizuna baino lehen ateratzen zaizkie argazkiak, “halere, bikote batzuk nahiago izaten dute gero atera-tzea, mutiak emaztegaia elizara iritsi aurretik ez ikustearren”. Koloreetako argazkiak nagusitzen dira, nahiz eta “batzuek zuribeltzean nahiago duten, sepia kolorea gehituz edo zuribeltzekoak koloreatuz. Moda kontua izaten da baina gehien koloreetakoak eskatzen dira, nahiz eta argazki batzuk zuribeltzean egin”.

Kostua? Ezkontzaren argazkiak, album-a eta guzti, 100.000 pezeta balio ditu batez beste. Honez gain, bikote batzuek, opari gisa, gonbidatu bakoitzari jatordua amaitzen denerako argazki bana oparitzen die eta hori aparte ordaindu behar da.

Bideo erreportajeari buruz, jakin dugunaren arabera, “%50ak erabakitzen du biak, argazkiak eta bideoa egitea. Gauza batek ez du bestea kentzen, desberdinak baitira”. Bideoa egitean irudirik politenak aukeratzen dira eta musika ere sartzen zaio, muntaia osoa egiten delarik. “Honek 70.000 pezeta inguru balio ditu”.



azkue


Ezkontza guztietan ateratzen zaizkie argazkiak ezkonberriei kuadrilarekin.

zer oparitu ezkon- gaiei



Elektragailuak

Leizabe




Aliantzak

Aranbu




Belarritakoak eta aliantza

Iosu



jarroiak

Beti-argi




Keramikak





J TETXE

Loiolako Inazio Hbda., 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18





INAUGURAZIOA

Aratzaleko Inonetaik 27.000
Aire



● **Ana Etxaniz, Gipuzkoako txapelduna 1.000 m.tan**

Gipuzkoako infatilen Atletismo Txapelketaren bigarren atala jokatu zen joan den zapatuan Eibarko Unbeko pistetan. Bertan Ana Etxanizek Gipuzkoako txapela eskuratu zuen 1.000 metrotan. Anak 3'20"ko denbora egin zuen. Honez gain, luzera jauzian ere hartu zuen parte eta hirugarren postuan geratu zen 4,57 metroko jauziarekin. Gipuzkoako txapelketaren ostean, hilaren 30ean Basauriko Euskadiko Txapelketan arituko da Ana Etxaniz bai 200 m. hesietan bai 1.000 metrotan. Honez gain, Maialen Morak ere parte hartuko du Euskadiko Txapelketan pisu jaurtiketan.

Alaitz Merino Zumarragan garaile

Mintxetako Atletismo taldeko korrikalariak Zumarragako krosean parte hartu zuten joan den astean. Aipagarriena Alaitz Merinoren lehen posuta izan zen infantiletan. Benjaminean Aitor Arrillagak eta kadeetan Jesus Juradok bigarren postua eskuratu zuten. Dorleta Aranberri ere bigarrena iritsi zen alebinetan; Nerea Zubiaurre hirugarrena eta Saioa De Pedro laugarrena. Azkenik, alebin mutiletan, Julen Merino bosgarrena izan zen, Iker Arriaga zazpigarrena eta Aitzol Urain zortzigarrena.

● **Eskola Kirolen sari banaketa**

Bihar, hilak 30, Eskola Kirolen programak urtero egiten duen sari banaketa ekitaldia izango da Kiroldegian eguerdiko 12:30etik aurrera. Kirol eta maila bakoitzeko talde irabazleak saria jasoko du. Benjaminean mailan, partehartzaile guztiek jasoko dute oroigarriren bat.

Esther Idiakez, Gipuzkoako txapelduna gimnasia erritmikoan

Ibai Kirol Elkarteko alebin mailako taldeak Eskolarteko Gimnasia Erritmikoko Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen joan den zapatuan. Maria Idiakez, Oihane Garate, Iraitx Solabarrieta, Carmen Lendinez eta Irene Unanuek osatzen duten taldea 2 pelotarekin eta 3 esku librean aritu zen. Bigarren lekuan geratu ziren, Gipuzkoako txapeldunorde, alegia. Banakako atalean, esku librean eta sokarekin, Esther Idiakez txapelduna izan zen. Carmen Lendinez, berriz, hirugarren geratu zen. Ibai Elkartekoek esan bezala, "txapelketan aritzen diren bigarren denboraldia dela kontuan izanda, emaitzak ez daude batere gaizki".



Iñigo Lariz, lehen elgoibartarra txirrindulari lasterketan

‘Elgoibarko Lagun Taldearen IX. Saria’ txirrindulari lasterketa jokatu zen pasa den zapatuan lehen urteko kadeteentzat. Arratsaldeko 16:00etan, 87 txirrindulari irten ziren Plaza Handitik eta 58 iritsi ziren Santa Klaran kokatutako helmugara. Irabazlea Irungo Xabier García izan zen; bigarrena, Ander Odriozola zumaiarra eta hirugarrena, Andoingo Ion Mariezkurrena. Iñigo Lariz izan zen lehenengo elgoibartarra (ezkerretik lehenengoa), seigarren lekuan iritsi zena helmugara. Beste bi elgoibartar, David Ferreiro eta Gotzon Gutierrez, 9. eta 51. lekuan sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Gipuzkoako txapeldunordeak futbolean



Pilar ikastetxeko alebin nesken taldeak, argazkian agertzen dena, Eskolarteko Gipuzkoako areto futboleko txapelketari dagokion azken partidua jokatu zuten pasatako asteburuan. Kontrarioak Tolosako Laskurain ikastolakoak ziren eta 3 eta 1 galdu zuen elgoibartarrek. Beraz, Gipuzkoako txapeldunordeak dira eskolarte mailan.

Uriarte ahizpek irabazi dute Eskola Kirolen logotipo lehiaketa

200 bat lan ezberdinen artean, Ainhoa eta Maite Uriarte ahizpa bikiek egindako logotipoa izan da Eskola Kiroleko Logotipo Lehiaketako irabazlea. 14 urteko ahizpa hauek Eskola Kiroleko inzialekin jokatu, hainbat kirol adierazten dituen logotipoa sortu dute. Sari banaketa joan den ostiralean izan zen Eskola Kiroleko programako arduradunetarikoa bat den Gorka Sastrearen eskutik.



Club Deportivo presidente berria hautatuko dute ekainaren 2ko bileran

Pedrusko taldea Kopako finala jokatzen ari da

Datorren asteartean, ekainak 2, iluntzeko 20:00etan hasiko da Club Deportivo Elkartearen 97/98ko denboraldiko azken bilera. Bertan zuzendaritza aldaketaren nondik norakoak zehaztuko dira eta presidente berria izendatuko dute. Dagoeneko ezaguna da badagoe-la pertsona bat presidente izateko prest, eta azken egunotan lantalde bat sortzen saiatu da datozen urteotarako zuzendaritzaren ardura hartu ahal izateko. Bilera Kultur Etxean izango da.

C. D.ko afaria

Joan den astean esan bezala, Club Deportivo jokalaria, bazkide, zuzendaritzako kide eta zaletu guztiek zapatuan, hilak 30, egingo dute urteko afaria. Iluntzeko 21:30ean izango da Olaizaga kiroldegian. Afarian, klubeko presidentek plaka bana emango die futbola utzi duten hiru jokalariri: Ander Iruretagoiena, Koldo Agirregomezkorta eta Miguel Díez. Era berean, 'Idarraga I. Saria' erregulartasunaren txapelketaren saria emango zaio Gor-ka Guarrotxena jokalaritari.

2. erregionala: txapela gero eta gertuago

C. D. Elkarteko 2. erregionaleko taldea txapela eskuratzeko lehian arituko da joan den zapatuan 4 eta 2 irabazi

baizuen Mintxetan. Garaipenari esker, ligako txapelduna erabakitzeko izango den partidua jokatuko du Debako Hamaika Bat taldearen kontra. Partidua Zumaian izango da. Irabaziz gero, dagoeneko 1. erregionalerako igotzea lortu duen talde hau, ligako txapelduna izango litzateke.

Pedrusko taldea, Kopako finalean

Pedrusko F. C. RIS taldea, aparteko denboraldia egin ondoren, bere taldeko irabazlea da eta 2. erregionaleko kopako txapelketan ari da buru belarri. Dagoeneko finalerako txartela eskuratu du eta azken partidua, zapatuan, hilak 30, jokatu da Mintxetan arratsaldeko 17:00etan. Pedruskok 14 partidua jokatu ditu Kopako txapelketan. Horietatik 13 irabazi egin ditu eta 1 berdindu.



Kopako finaleko partidua jokatuko du Pedruskok Mintxetan.

EMAITZAK

Futbola

Pedrusko 0 - Ostadar 0 (2. erreg.)
Elgoibar 4 - Boskozaleak 2 (2.erreg.)
Elgoibar 1 - Ondarroa 0 (Kad.)

Eskubaloia

Beasain 19 - Tecnomeca 41 (Jub. mut.)
Unceta 19 - Bidebieta 10 (Kad. nes.)
Urola 15 - Pneumax 13 (Kad. mut.)

Lagunak Pilota Txapelketa

(98/05/20)

Rodriguez 18 - P. Larrea 14 (Benj. aurre.)
Guemez 7 - Txurruka 18 (Benj.)
Arrizabalaga 6 - A. Larrea 18 (Benj.)
Azpiazu 16 - Larrañaga 18 (Aleb.)
Loiola 15 - Bernedo 18 (Kad.)

(98/05/22)

Oiarzabal 12 - Salazar 18 (Benj. aurre.)
Garai 18 - Gomez 16 (Benj.)
Arrillaga 6 - Martinez 18 (Benj.)
Larrañaga 8 - Agirrebeña 18 (Aleb.)
Arrillaga 18 - Idueta 8 (Kad.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 30
15:30 Elgoibar - Aierru (1. jub.)
17:15 Pedrusko - Gazteak (2. erreg.)
Igandea, 18
11:00 Infantilak - Gurasoak (Lagunart.)

Eskubaloia, Azkoitiko kiroldegian

Larunbata, 30
16:00 Tecnomeca Elg. - Pulpo (Jub. mut.)
Igandea, 31
11:30 Penumax Elg. - Bidasoa (Kad. mut.)

● Unzeta-Elgoibar eskubaloit taldea, Kopako finalean

Kadete nesken mailako Unzeta-Elgoibar taldeak Kopako finaleko lehen partidua irabazi zuen joan den zapatuan, emaitza 19 eta 10 izan zelarik elgoibartarren alde. Hortaz, bueltako partidua Donostiako Corteblando taldearen aurka jokatuko dute. Bederatzi golen azpitik galduz gero, Gipuzkoako Kopako txapeldunak izango lirateke elgoibartarrak, denboraldiari amaiera ezin hobea emanaz. Bestalde, Ikas Gorribeltz taldeak Gipuzkoako Txapela lortu du, joan den asteburuan Lasarteko Telleria taldearen aurka 13 eta 8 irabazi ondoren. Bihar, hilak 30, Basaurin izango den Euskadiko Txapelketa jokatuko dute arabarren aurka. Arratsaldean, berriz, Bizkaiko txapeldunen aurka jardungo dute eta ekainaren 6an, azken partidua izango da Nafarroako ordezkarien kontra.



Unzeta taldeko neskek.

azkue

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena

200 dantzari elkartuko dira domekan Dantzari Egunean

Añorga, Galdakao, Portugalete eta Elgoibarko Dantzari Taldeek hartuko dute parte

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenaren inguruan, hainbat ekitaldi ari dira antolatzen urte osoan zehar. Ekitaldi garrantzitsuenen artean igandean, hilak 31, izango den Dantzari Eguna dago. Jose Inazio Sarasua Haritz Dantzari Taldeko zuzendariak esan bezala, “guretzako oso inportantia da Euskal Herriko lau dantza talde onenariak Elgoibarren biltzea”. Bizkaitik, Portugaleteko Elai-Alai Taldekoak eta Galdakaoko Andra Marikoak datoz, Bizkaiko bi talde puntakoenak direnak gaur egun. Hauez gain, Añorgako Arkaitz Taldekoak eta Elgoibarko Haritz Taldekoak ere hartuko dute parte. “200 dantzari izango gera danera, 50 lagun talde bakoitzeko. Kasualidadia da asteburuan Bizkaixan Ibilaldia ospatzea. Portugaletekoak eta Galdakaokoak Ibilaldira jutekuak zian, baina aurretik hitz emanda zaizen gurekin eta horregatik Elgoibarrera etorriko diaz”.

Talde bakoitzak Euskal Herriko herrialde bateko dantzak eskainiko ditu: Añorgako Arkaitz Taldeak Nafarroako



azkue

Elgoibarko Haritz Dantzari Taldeko kideak eliz arkupean aurrean.

dantzak; Galdakaoko Andra Marik Bizkaiko dantzak; Portugaleteko Elai-Alai Taldeak Zuberoako dantzak eta azkenik, Haritz Taldeak Gipuzkoako dantzak.

Igandean, hilak 31, eguerdiko 12:30ean hasiko da dantza ikuskizuna Plaza Handian. Jose Inazio Sarasuak adierazi bezala, “guretzako leku ezin

aproposaua da Plaza Haundixa dantza eitzeko. Elgoibartarrok ez dou apreziatzen ze posibilidade eta zelako estetikia eskaintzen daban Plaza Handixak, beti ere, egualdixak laguntzen badau. Askotan gertukua ez da apreziatzen. Gure asmuen artian ere badao Plaza Haundixa eszenarixio moduan errekuperatzia”.



Goian, Arkaitz Taldekoak Nafarroako dantzen saioan. Behean, Bizkaiko dantzak Andra Mari Taldekoen eskutik.



Elai-Alaikoek Zuberoako dantzak eskainiko dituzte..

Amaitu da oraingoz Ongarriren Zine Kluba

Urrian ekingo diete berriz zine klubeko emanaldiei

Ongarri Zine Klubeko azken pelikula izan da amaitzear dagoen aste honetakoa, "Fotografiando Hadas" izenburukoa. Urriaren 97tik maiatzaren 98ra bitartean Ongarrikoek 25 pelikula eman dituzte 37 saiotan banatuta. Ongarrikoen esanetan, "zortzi hilabeteotako politika ziklo laburretan oinarritu da, programazio kulturalagoa eskainiz, beti ere zineari dagokionean". Denboraldi honetan Ongarri Zine Klubekoek herriko kolektiboekin elkarlanean hainbat saio antolatu dituzte. "Badakigu, agian, karteldegiko zenbait filme ez direla ikusle goaren gustukoak izan, zine komertziala kontsumitzeko ohitura oso zabaldua baitago. Hala ere, gure asmoa beste era bateko zinea ezagutaraztea da, beste joera eta kultura batzuek azaltzen dizkiguten proposamen duinak eskainiz, hartara, zine eskaintza osatze aldera". Aurten zazpi ziklo egin dituzte:

nazismoari buruzkoa, errepideko zineari buruzkoa, zine epela abenduan, zinea eta elkarteak, errealismo sozial ingelesa, gaur eguneko zine frantsesa, filme madarikatua, hurren zinea eta estetizismoa zinean.

Aire libreko zinea uztailean

Zine Klubeko saioak datorren urrian hasiko dira berriz eta 99ko ekainera bitartean luzatuko dira. Bien bitartean, uztailearen 3an hasiko den Aire Libreko Zinea prestatzeari ekingo diote Ongarrikoek ekaine-



Kolektiboen elkarlaneko egitasmoaren barruan, Elgoibarko Izarrak zine saio bat prestatu zuen.

an. Lerro hauen bitartez, Ongarrikoek eskerrak luzatu nahi diozkiete Udaleko Kultura Sailari, zaletuei eta herritar guztiei orohar.

Uztailaren

Irteera

Uztailaren 13an, astelehena, goizeko 10:30ean Plaza Handian

Itzulera

Uztailaren 19an, igandea, eguerdiko 13:00etan Plaza Handian



prezioa

10.000 pta.

zer

g aztelu eta inguruko mendiak ezagutu Tolosara irteerak igerilekura irteerak

IZEN-EMATEA

ekainaren 5a baino lehenago:

ELGOIBARKO IZARRA

Ubitarte, 4 behea

Informazio gehiago:

74 16 26, M^a Jesus (goizez)

plaza mugatuak!

Antolatzailea:

Elgoibarko Izarrako
Atxutxiamaiak B. T.

Laguntzaileak:

Elgoibarko Udala
Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI (EPA) 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

30
larunbata

11:00 INSTITUTUKO FRONTOIAREN eta LABORATEGIAREN INAUGURAZIOA
 Antolatzailea: Herri Institutua

11:30 URRUZUNO LITERATUR TALDEAREN BILERA BARREN

12:00 ZAZPIKIREN BILERA
 Ganbaran

12:30 ESKOLA KIROL EN SARI BANAKETA
 Kiroldegian

19:30-22:15 ZINEA
 "El hombre de la máscara de hierro"

21:30 CLUB DEPORTIVO KO AFARIA
 Kiroldegian

1
astelehena

22:15 ZINEA
 "El hombre de la máscara de hierro"

2
asteartea

20:00 CLUB DEPORTIVO OREN BILERA
 Kultur Etxean

4
osteguna

16:00 IKUSENTZUNEZKOA
 Izenburua: "Kuba"
 Egilea: Jabier Albistur
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: DEBABE
 Euskalategia

31
igandea

12:30 DANTZARI EGUNA
 Harkaitz, Andra Mari, Elai-Alai eta Haritz taldeekin
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Haritz Dantzari Taldea

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "El hombre de la máscara de hierro"

5
ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAREN BILERA
 Gaztetxean
19:00 AKUARELA ERAKUSKETA
 Egilea: Alfonso Tricio
 Kultur Etxean
 Hilaren 19ra arte
22:15 ZINEA
 "Legítima defensa"

29
ostirala

19:00 HERRI ESKOLAKO URTE AMAIERAKO JAIALDIA
 Herriko Antzokian

19:00 GAZTE ASANBLADAREN BILERA
 Gaztetxean

20:00 IKUSENTZUNEZKOA
 Izenburua: "K2 Baltistan"
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 Morkaiko M. E.

22:00 KONTZERTUA GAZTETXEAN
 "Arakajun"
 Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:15 ZINE KLUBA
 "Fotografiando Hadas"

ZINEA



El hombre de la máscara de hierro

Denok ezagutzen dugun hiru Mosketeroen istorioaren egokitzapen libre xamar honetan, Frantziako biztanleak Luis XIV Errege maltzuraren pean bizi dira. Urte asko pasatu dira hiru Mosketeroak eta D'Artagnan elkarrekin borrokan aritu zirenetik. Oraingoan berriz elkartuko dira Erregearen aurka borrokatu eta honen anaia bikia gartzelatik ateratzeko.

Zuzendaria: Randall Wallace.
Antzezleak: Leonardo DiCaprio, Jeremy Irons, John Malkovich.

● **1948 urtean jaiotako en bazkaria**

Bihar, hilak 30, 1948 urtean jaiotako elgoibartarrek jaiotzako urrezko eztaiak ospatuko dituzte bazkari batean bueltan. 100 lagun baino gehiagok eman dute izena dagoeneko bazkari-rako. Eguerdiko 12:00etako meza entzun ondoren Konporta elkartearen luntxa izango dute. Eguerdiko 14:30ak aldera, Herri-Gain jatetxera inguratzen hasiko dira bazkari eder baten bueltan egun alai pasatzeko asmoz. Arratsalde partera, 'Jaiki' taldearekin dantza egiteko aukera ere izango da.

● **Sanmigeldarren eguna**

Ekainaren 14an, Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute auzotarrek. Fernando Loiola 'Karral' futbolaria izandakoa omenduko dute 26 urtez futbolearen aritu baita. Goizerako, meza eta pilota partiduak antolatu dira. Eguerdian auzoko bazkaria izango da eta ondoren omenaldia egingo zaio Loiolari. Arratsaldean Balzola Anaiekin erromeria izango da. Bazkari txartelak 3.000 pta.n daukete salgai eta gaztetxoentzat 1.000 pta.n. Txartelak Armueta eta Ziarda harategietan eta Kalamua elkartearen eskurat daitezke edo Jabier Arrizabalagari eskatuta. Epea ekaiaren 10ean amaituko da.

● **Alfonso Tricio gasteiztarren akuarela erakusketa**

Datorren ekainaren 5etik 19ra bitartean, Alfonso Tricio gasteiztarren margoak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko erakusgelan. 31 urteko artista honek akuarelak margotzen ditu eta dagoeneko lau erakusketa egin ditu Gasteizen eta Bilbon. Honez gain, ikastaro ugari ere egindakoa da. Kultur Etxeko erakusgelaren ordutegia: arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara astegunetan eta 12:00etatik 14:00etara jaiegunetan.

● **Herri Eskolako urte amaierako jaialdia**

Gaur, hilak 29, Herri Eskolako 2 urte-tik 6. mailara bitarteko ikasleek urte amaierako jaialdia eskainiko dute Herriko Antzokian. Abesti, antzerki, dantza, bertso eta flauta saioek osatuko dute jaialdiaren egitaraua. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

● **Herri Institutuko frontoiaren eta laborategiaren inaugurazioa**

Elgoibarko Herri Institutuko frontoia eta hizkuntza laborategiaren inaugurazio ekitaldia izango da bihar, hilak 30. Goizeko 11:00etan ikasleek egingo dako lanen erakusketa egingo da eta ordu berean, frontoia eta hizkuntza laborategiaren inaugurazioari ekingo zaio. Ondoren pilota partiduak jokatuko dira eta jarraian, zentroko arduradunen eskutik bisitaldi gidatua egingo da. Indarrak berreskuratze aldera, ikastetxeko zuzendaritzak luntxa eskainiko du eta amaitzeko, eguerdiko 13:00ean, DBHko ikasleek "Musu baten bila" antzerkia taularatuko dute gimnasioan.

T R A N D A R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
30	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria (Santa Ana kalean)
31	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria (Santa Ana kalean)
1	Anduaga	Anduaga
2	Yudego	Yudego
3	Zabaleta	Zabaleta
4	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria (Errosario kalean)
5	Escala	Escala

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

31 igandea Doña Mercedes

ROKE TABERNA

- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Afari merkeak
- Pintxoak...

Aurrez deituz gero, hobe!

Ondo pasa Trinitate jaiak!

Erretxindi, 1 • Tel. 943 74 37 60 • ELGOIBAR

OLASO TABERNA

Olaso industrialdea, 15
 Tel: 943 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -
- LARUNBATETAN -
- Rabak • Olagarroa • Fritoak
- GAUEZ -
- Menu ekonomikoak eta plater konbinatuak

- Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
 INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 7:00-22:30
 Larunbatetan 9:00etatik aurrera

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Umea zaindu eta etxeko lanak egiteko neska behar da. ☎ 74 45 87
- ◆ Pertsona bat behar da, euskalduna ahal bada, umeak zaindu eta etxeko-lanak egiteko. ☎ 74 01 65 (gaueko 20:30etik aurrera).
- ◆ Tabernarako neska behar da asteburuetan lan egiteko. Euskalduna. ☎ 12 73 34
- ◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 74 01 80
- ◆ Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. ☎ 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)
- ◆ Jendea behar da rebarbatzaile lan egiteko. Interesatuak deitu 15 18 16 telefonora.

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko (esperientziarekin). Beste lan batzuk ere egingo nituzke. ☎ 74 15 74 (M. Carmen)
- ◆ Neska eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanetan. ☎ 75 51 93
- ◆ 30 urteko neska euskaldunak haurrak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Esperientziarekin. ☎ 75 91 93
- ◆ 44 urteko emakumea eskaintzen da zaharrak zaindu edo/eta etxeko lanak egiteko. ☎ 74 09 06/74 10 55

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Errepideko bizikleta salgai. Merida, Shimano 105. Prezio interesgarria. ☎ 74 07 85
- ◆ Lokal-bulegoa alokatzen dut alzariekin. Erdigunean. ☎ 74 43 62
- ◆ Game Boy bat saltzen dut. 13 jolas ditu. 13.000 pta. ☎ 74 24 83
- ◆ Kotxe kapota, kotxea estaltzekoa eta 2 manta salgai. Guztiak berriak. ☎ 74 44 16
- ◆ Aukera. Karabana salgai. Oso ondo zaindua. Prezioa 350.000 pta. ☎ 74 27 29
- ◆ Aleaziozko 4 llanta saltzen ditut. Wolkswagen Polo autorako. 20.000 pta.n. ☎ 74 43 10 (Kitxo)

◆ EROSI ◆

- ◆ Umea bizkarrean eramateko motxila erosiko nuke. ☎ 74 42 97

Partikularrak

- ◆ Latin eta grekera klaseak hartuko nituzke. ☎ 74 09 85 (Nuria)
- ◆ Enpresariales ikasketetako Ekonomia I eta II ikasgaien klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ 74 15 24
- ◆ Humanistikako klaseak emateko norbait behar da. ☎ 74 14 03
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 74 07 86
- ◆ Humanistikako klaseak hartuko nituzke selektibitateko. ☎ 74 09 85
- ◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 00 98

Etxebizitzak

- ◆ Benidorm-en pisua hartuko nuke alogeran abuztuan. Hondartzatik gertu. ☎ 74 42 37 (19:00etatik aurrera)
- ◆ Etxea saltzen da Deban. Erdigunean dago, kanpora ematen du, eguzkitsua da eta berriua dago. Sukaldea, egongela, bi logela eta bainugela ditu. ☎ 19 18 40
- ◆ Pisua alokatuko genuke Elgoibar, Altzola edo Mendaron. ☎ 74 80 23 (Andres Casillas. 8:00-12:00 eta 13:00-16:30. Astelehenetik ostiralera)
- ◆ Duplex-a saltzen da Urasandi 17-2an. ☎ 939 22 84 41 (gaueko 21:00etatik aurrera)
- ◆ Logela alokatuko nuke. ☎ 74 00 98
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 100 m2, ganbararekin eta igogailuarekin. 4. pisua da. ☎ 74 11 05

Garajeak

- ◆ Garaje itxia saldu edo alokatzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04
- ◆ Garajea alokatzen da, Pista beltzaren azpian. ☎ 74 14 89
- ◆ Marradun garajea alokatzen da pista beltzean 5.000 ptan. hileko. ☎ 74 00 70 (gauez)
- ◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 75 51 77 (Tere)
- ◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren. ☎ 74 26 94
- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 74 33 39

Bestelakoak

- ◆ Gos D'atura arrazako txakurra oparitzen dut. Txikia eta polita da. ☎ 74 40 85
- ◆ Cocker txakur-kumeak salgai. ☎ 75 60 25
- ◆ Betaurrekoak galdu ditut Ubitarte banko batean. Funda gris-marroi baten barruan zeuden. Norbaitek aurkitu baditu, dei dezala 74 11 45 zenbakira edo eraman ditzala Ubitarte 5, behera (Julian Leiaristi).
- ◆ Gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. ☎ 74 37 89
- ◆ Katu har bat oparitzen dut. Lau urte ditu. Jateko platera eta abar oparitzen ditut. ☎ 929 47 69
- ◆ Rolling Stones-en kontzerturako autobusa antolatuta da. Kaia tabernan galdetu.
- ◆ Etxebizitza baten eskriturak galdu ditut. Sobre zuri baten barruan daude. ☎ 74 33 41 (Conchi Maza Diaz).
- ◆ Neska batek beste neska bat behar du pisua konpartitzeko ekainean eta uztailean. ☎ 74 00 98
- ◆ Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu ditut funda barruan gordeta. Urre koloreko patilak ditu. ☎ 74 08 37/70 70 33

Agurak

- ◆ Zorionak Ikastolako **Ikasbizkor** eta **Ikas Hartz** taldeei onenak dirrelako.
- ◆ Zorionak **Olatz Urigenari** maiatzaren 24an jaunartzea egin zuelako. Lagunen partez.
- ◆ Zorionak **Saioa De Pedrori** 11 urte bete dituelako. Ikastolako 5. mailako partez.
- ◆ Zorionak **Sara Gurrutzagari** maiatzaren 26an 10 urte bete zituelako. Bere lagun Aneren partez.
- ◆ Eskerrik asko nere "monstru-tari" eta lagunari.
- ◆ Zorionak **Pilar Larrañagari** hilaren 26an urteak bete zituelako. Kafeko lagun partez.
- ◆ Zorionak **Igor Lasueni** hilaren 31n 17 urte beteko dituelako. Guraso, anaia Ekaitz eta, batez ere, Iker eta Unai lehengusuen partez.
- ◆ Zorionak **Mari Mari** hilaren 30ean 15 urte beteko dituelako. Expediente X.
- ◆ Zorionak **Adrian Lamelasi** bihar urte bat gehiago izango duetako. DBHko 2. mailako guztien eta bereziki Itziar, Leire, Unai eta Aritzen partez.

◆ Zorionak **Maidar Bengoetxeari** ekainaren 7an jaunartzea egingo duetako. Familiaren partez, bereziki Leire eta Nerearen partez.

◆ Zorionak **Aitziber Gorrotxategiri** bihar, hilak 30, urteak beteko dituelako. Beti bezain jator jarrai dezala. Ondo pasatu, familiaren eta bereziki Jokinen partez.

◆ Zorionak **Enara Gorostizari** hilaren 23an 13 urte bete zituelako eta Mankomunitateko Komiki Lehiaketan bigarren saria lortu duetako. Jarraitu horrela. Familiaren partez.


◆ Zorionak **Ainarari** larunbatean 8 urte beteko dituelako. Guraso, amama eta izebaren partez.



◆ Zorionak **Ander Ortegari** maiatzaren 27an 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Pedroren partez.



◆ Zorionak **Asier Eliari** Janireren partez. Egun on bat pasa dezala.



◆ Zorionak **Idoia Ginea Loiolari** hilaren 30ean 9 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Joni**

gaur, hilak 29, 13 urte bete dituelako. Familiaren partez, bereziki anaia Aitorren partez. Zorionak baita ere DBH 1ekoan partez.



◆ Zorionak **Ioritz** ekainaren 13an 13 urte beteko dituzulako. Guraso eta familia osoaren partez musu haundi bat eta Aupa Athletic!



◆ Zorionak **Mireia Jauregiri** bihar, hilak 30, 9 urte beteko dituelako. Familiaren eta, batez ere, Itsaso, Endika eta Maialenen partez.





ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*

San Frantzisko, 43 – Tel: 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 20 34 45 – EIBAR

Ospatu itzazu gurekin

TRINITATE JAIAK

Deitu eta erreserbatu tokia lehenbailehen

ATERPE

San Roke, 5

Tel: 74 25 95

BEREZITASUNA:

- Oilasko errea (Enkarguz eramateko ere bai)



ESTAZIO TABERNA

San Inazio, 9

Tel: 74 45 34

TRINITATE MENUA:

- Urdaiazpikoa
- Itxaropena errebueltoa
- Zainzuriak
- Rapea plantxan
- Saiheskia
- Postrea

2.500 pta.



GABI


Nafarroa

Enparantza

Tel: 74 12 30

BEREZITASUNAK:

- Entsalada hotz eta epelak
- Bertako okela
- Arraina
- Etxeko gozoak



GORBEA

Santa Ana, 10

Tel: 74 05 80

BEREZITASUNAK:

- Makailoa saltsa berdean
- Txuletak



HEMENDIK

Pedro

Muguruza, 20

Tel: 74 25 00

BEREZITASUNAK:

- Erretakoak
- Kazuelatxoak
- Olagarroa



HERRI GAIN

San Pedro, 4

Tel: 74 30 40

BEREZITASUNAK:

- Arraina
- Okela



IBAI ONDO

Giza

Eskubideen

Enparantza

Tel: 74 26 27

BEREZITASUNAK:

- Entsalada hotz eta epelak
- Bertako okela
- Arraina
- Etxeko gozoak



TXANALA

Bainuetxeko

Zumardia, 5

Tel: 74 43 46

BEREZITASUNAK:

- Txitxarroa
- Itsas-zapoa
- Legatza
- Txuleta
- Saiheskia



ZUBIA

Bainuetxeko

Zumardia, 2

Tel: 74 05 13

BEREZITASUNAK:

- Arraina eta haragia erreta
- Bildotsa burduntzi erara



Despedidak • koadrilako afariak • familiarteko ospakizunak